

# EMAKUMEEN ETXEEN GIDA



GIPUZKOA  
**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro

## AURKIBIDEA

1.	<b>Zer dira Emakumeen Etxeak?</b> .....	3
1.1	Emakumeen Etxeen izaera .....	3
1.2	Emakumeen Etxeen helburuak.....	4
1.3	Emakumeen Etxeen ezaugarriak .....	5
1.4	Emakumeen Etxeetan eskaintzen diren zerbitzuak.....	6
2.	<b>Marko arautzailea</b> .....	10
3.	<b>Marko kontzeptuala</b> .....	13
4.	<b>Emakumeen Etxeak zabaltzeko prozesuak</b> .....	17
4.1	Prozesuen sorrera .....	17
4.2	Prozesuen ezaugarriak .....	18
4.3.	Emakumeen Etxeen partaidetza prozesu baterako eredu bat .....	21
5.	<b>Emakumeen Etxeen gobernantza ereduak</b> .....	23
5.1	Emakume mahaiak / Berdintasun kontseilua .....	23
5.2	Emakumeen Etxearen koordinaziorako guneak .....	24
5.3	Elkarteekin batera kudeatutako guneak.....	25
6.	<b>Emakumeen Etxeak martxan jartzeko orientabideak</b> .....	26
6.1	Emakumeen Etxeak sortzeko prozesurako orientabideak .....	26
6.2	Emakumeen Etxeen kudeaketarako orientabideak .....	27
	Eranskina .....	28
	Gipuzkoako Emakumeen Etxeak (Fitxak) .....	28

## 1. Zer dira Emakumeen Etxeak?

Emakume eta gizonen berdintasunean aurrera pausoak emateko helburuarekin, emakumeen ahaldundu eta saretzea sustatzen duten udal ekipamenduak dira.

### 1.1 Emakumeen Etxeen izaera



#### **Ekipamendu publiko-komunitarioak dira.**

Udal ekipamendu publikoak dira, baina bereizgarri dute herriko emakume eta elkarte feministekin elkarlanean sortutako proiektuak direla partaidetza prozesuen bidez. Egunerokoan, emakumeen, berdintasunaren aldeko eragileen eta mugimendu feministaren parte hartze eta inplikazioarekin batera kudeatzen dira. Emakumeen Etxe bakoitzak bere herriko egoera eta beharretara egokitzen da, eta horregatik Etxe bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu.



#### **Emakumeen topaguneak dira,**

Emakumeen Etxeak emakumeen arteko harremanak eta sareak bultzatzeko lekuak dira. Gizartearen eraldaketa helburu izanik, herritar orori zuzendutako sentsibilizazioa eta ikastaroak eskaintzen dira.



#### **Espazio irekiak eta seguruak dira.**

Ekipamenduan bertan harrera egiten duen profesional bat egoten da, zenbait kasutan lantaldeak egoten dira. Ekipamendua momentu oro abegikorra izatea da haien funtzioa, ekipamendua ezagutarazi, zerbitzuen berri eman, berdintasunaren aldeko elkarte eta eragileei baliabideak eskaini, programazioa koordinatu eta harrera pertsonala egiteaz arduratzen dira.

## 1.2 Emakumeen Etxeen helburuak



### **Emakumeen ahalduntzea.**

Sexu-bereizkeriei aurre egiteko norberaren gaitasunak eta ezagutza handitzea dute helburu Emakumeen Etxeek. Horrez gain, norberaren ahalduntzetik ahalduntze kolektiborako bidea ere irekitzen dute, emakumeen arteko sareak eta elkartegintza sustatzen dutelako.



### **Indarkeria matxistari modu integralean erantzutea.**

Egunerokoan bizi ditugun indarkeria matxistei modu integralean aurre egiten laguntzen digute Emakumeen Etxeek. Harrera eta informazioa, prestakuntza, aholkularitza, harremanak eta erreparazioarako baliagarriak diren zerbitzuak eskaintzen dituzte. Kasu larrienetarako, gizarte zerbitzuekin, edo bestelako zerbitzuekin koordinazioa eta deribazioa ere egiten da.



### **Berdintasunaren aldeko elkartegintza feminista sustatzea.**

Jakina da mugimendu sozialek, eta kasu honetan, emakume eta eragile feministen bultzada ezinbestekoa dela berdintasunera iristeko. Horregatik Etxeetatik espazio eta baliabideak jartzen dira elkartegintza mota hau sustatzeko.

### 1.3 Emakumeen Etxeen ezaugarriak



**Ekipamenduen izenak:** Izenen aukeraketa prozesu parte hartzaileen emaitza bat izan ohi da. Denek ez dute Emakumeen Etxea izena, dokumentu honetan horrela deitzen badiegu ere. Andretxea, Emakume Txokoa, Etxelila, Kulturarteko Plaza Feminista, bestelako izen propioak ere badituzte.




**Espazioaren ezaugarriak:** Etxeek harrera gune bat, areto nagusi bat, hainbat gela eta aholkularitzarako bulegoak izan ohi dituzte. Lokalen tamaina 200 m<sup>2</sup> eta 900 m<sup>2</sup> arteko zabalera dute.



**Ordutegiak:** Gehienek goizez eta arratsaldez ematen dute zerbitzua. Baten batek txandakatu egiten ditu goiza eta arratsaldeak, eta beste batzuek arratsaldez irekitzen dute soilik. Batzuek atsedena dute eguerdian eta besteek jarraian irekitzen dute. Asteburuetan espazioa erabilgarri egoteko sistema ezberdinak erabiltzen dituzte. Askok, emakume talde eta eragile feministen laguntzari esker irekitzen dute.



**Berdintasun Politikekin harremana:** Ekipamendu hauek guztiak berdintasun sailarekin, berdintasun bulego edo zerbitzuei daude lotuta. Elkarlana eta koordinazioa dago udaleko berdintasun teknikariarekin. Berdintasun Planetan jasotzen diren ekintzen artean egoten da jaso Etxearekiko planifikazioa. Zenbaitetan udaleko berdintasun zerbitzua Emakumeen Etxe barruan kokatzen da.



**Iturri ekonomikoak:** Emakumeen Etxeak ekipamendu publikoak izanik, udalek eta mankomunitateek finantzatzen dituzte ekonomikoki.

## 1.4 Emakumeen Etxeetan eskaintzen diren zerbitzuak

Ekipamendu bakoitzak bere zerbitzuak eta ezaugarriak ditu. Jarraian zerrendatuko ditugu Gipuzkoako Emakumeen Etxeetan aurkitu daitezkeen zerbitzuak. Horrek ez du esan nahi Etxe guztietan zerbitzu guztiak eskaintzen direnik.

Zerbitzuetarako sarbidea izateko ez da inolako baldintzarik eskatzen, eta orokorrean, doakoak izaten dira.

### Emakumeen Etxeetan egon ohi diren zerbitzuak:

1. Harrera eta informazioa
2. Ahalduntzerako talde iraunkorrak
3. Jabetze eskola
4. Kultura eta sorkuntza feminista
5. Aholkularitza zerbitzuak
6. Parte hartzeko guneak
7. Bestelako zerbitzuak

### 1. Harrera eta informazioa

Ekipamendura sartzen direnei harrera egiteko arduradun bat egin ohi da normalean. Harrera horren funtzioa Etxerako **sarbidea erraztea** da, hurbiltasuna eta goxotasuna adieraztea. Horrez gain, **hainbat informazio helarazten** zaio sartu denari:

- Emakumeen Etxearen funtzionamenduaren berri ematen zaio, ikastaro, zerbitzu eta parte hartzeko espazioen inguruan.
- Behar izanez gero, bestelako zerbitzu publikoen berri ere ematen da. Horrez gain bestelako zerbitzuetara bideratzeko laguntza ere eskaintzen da.
- Behar zehatzen aurrean, elkartegintzaren eta komunitateen berri ere ematen da. Izan aniztasun funtzionala duten elkarteena, harrera elkarteena, mugimendu feministarena edo bestelako elkarteena.

## 2. Ahalduntzerako talde iraunkorrak

Emakume guztion ahalduntzea sustatu nahi da. Hala ere kolektibo anitzei irekitako **babes-taldeak** aurki ditzakegu bertan, besteak beste, honakoak:

- Emakume migratuen edota arrazializatuen ahalduntze taldeak.
- Adinaren araberako ahalduntze taldeak: Emakume adinduen ahalduntze taldeak, gazteen ahalduntze taldeak, besteak beste.
- Zaintza gaiaren inguruko ahalduntze taldeak: Etxeko langileak, zaintza ardurak dauzkaten senideak, besteak beste.
- Indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeen taldeak.

## 3. Jabetze Eskola

Ikastaro puntualak eta luzeak, emakumeen eta gizonen berdintasuna, rol eta estereotipoak deseraikitzea eta hausnarketa feminista sustatzen dutenak. Hauek adibide batzuk dira:

- **Gorputzaz jabetzeko saioak:** Osasuna eta norberaren zaintzaren inguruko saioak, emakumeak kirolean sustatzeko saioak, besteak beste.
- **Feminismoen inguruko saioak:** Genealogia feminista, ekofeminismoa, feminismo beltzak, besteak beste.
- **Indarkeria matxistari aurre egiteko saioak:** Autodefentsa feminista, mikromatxismoak identifikatuz, besteak beste.
- **Autonomia-burujabetza lantzeko ikastaroak:** Etxeko brikolajeak, bizikleta konpontzeko tailerra, teknologien ingurukoak, besteak beste.
- **Genero-ikuspegia arlo ezberdinetan lantzeko saioak:** Hirigintza genero-ikuspegitik, kirola genero-ikuspegitik... besteak beste.

## 4. Kultura eta sorkuntza feminista

Berdintasuna, errespetua eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko, bai eta aisialdiaz gozatzeko kultura feministarako espazioak eta jarduerak eskaintzen dituzte Emakumeen Etxeek. Esaterako hauek:

- Liburutegia, Irakurle taldeak, Antzerkia, Batukada, Zineklub feminista, Bestelako adierazpen artistikoak

## 5. Aholkularitza Zerbitzuak

Normalean jarduera kolektiboak gailentzen diren arren, norbanakoentzako zerbitzuak ere aurki daitezke Emakumeen Etxeetan, batez ere, sexu-bereizkerien aurrean babes eta laguntza ezberdinen inguruan aholku ematen duten zerbitzuak.

- **Aholkularitza juridikoa:** Justizia gaietan aholkatzeko zerbitzuak izan ohi dira. Banantzeak, herritartasuna eskuratzeko aholkuak, lan harremanekoak, indarkeria matxistari buruzkoak edota haurren zaintzei buruzkoak, besteak beste.
- **Aholkularitza psikologikoa:** Aholkularitza psikologikoak entzunak izateko espazio indibidualizatuak dira norberaren egoera pertsonalean laguntzeko.
- **Etxeko langileentzako lan-aholkularitza edo lan aholkularitza zabalak:** Lege aholkularitza izaten da, enplegu duinak sustatzeko laguntza.
- **Aholkularitza sexu-afektiboa:** Kasu gehienetan nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzua izaten da.
- **Tituluen homologaziorako eta enplegurako zerbitzua:** Ikasketa, prestakuntza-ibilbideak, curriculumak homologatzeko aholkularitza eskaintzen dute emakumeen etxe askok. Baten batek enplegurako aholkularitza ere eskaintzen du.



## 6. Parte hartzeko guneak

Emakumeen Etxe gehienak emakume talde eta mugimendu feministen eskakizunetik sortu ziren, eta eragile hauekin batera bultzatutako partaidetza prozesuen bidez diseinatu dira. Eguneroko funtzionamenduan ere, emakumeen parte hartzea bultzatzeko espazioak aurki daitezke Emakumeen Etxe gehienetan. Adibidez, hauek:

- **Etxearen antolamendurako:** Koordinadora edo emakumeen mahaiak.
- **Mugimendu feministaren antolamendurako:** Martxoak 8 plataformak, Mundu-Martxa, erasoen aurkako koordinadorak, besteak beste.
- **Udal berdintasun politiketan parte hartzeko:** Berdintasun Kontseiluak, Emakume eta Hiria foroak, eta abar.

## 7. Bestelako zerbitzuak

- Emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko sentsibilizazio jarduerak.
- Mugimendu feminista, emakumeen elkarteen eta berdintasunaren aldeko taldeen erabilerarako baliabideak:
  - Bilera gelak
  - Ordenagailuak

## 2. Marko arautzailea

**Emakumeen Etxeek** emakume eta gizonen berdintasunerako politikak gidatzen dituzten maila ezberdinetako mandatu, **arau, estrategia eta programazioekin lerratuta daude**. Jarraian jaso ditugu araudi eta programarik esanguratsuenak:

### NAZIOARTEKO ARAUAK

**Emakumeen ahalduntzea berdintasunerako estrategia nagusi gisa:**

- **Nazio Batuen Erakundeak** argi utzi zuen 1995ean antolatutako **Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzian** giza garapena lortzeko funtsezkoa zela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiestea, eta berdintasun hori lortzeko ezinbesteko estrategia emakumeen ahalduntzea izan behar zela. Hala aldarrikatu zuen **Adierazpenaren 13. artikuluan**: *“berdintasuna, garapena eta bakea lortzeko, funtsezkoa da emakumeen rola indartzea eta emakumeek berdintasun-baldintzetan parte hartzea gizartearen eremu guztietan nahiz erabakiak hartzeko prozesuetan, eta boterea eskuratzea”*.
- **NBEren Helburua Giza Garapena 2030** dokumentuan jasotako 17 helburutatik bat hau da: *“genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea”* (5. helburua). Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasuna gainerako helburuetan ere zeharka landu eta garatu behar dela finkatzen du.

**Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren strategiaren inguruan:**

- Europako Kontseiluak 2011n **Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eta etxeko indarkeriaren aurkako eta honen prebentziorako Istanbulgo Konbentzioa** landu zuen, Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko **nazioarte-mailan irismen handiena duen hitzarmena** da, giza eskubideen urraketa larri gisa ulertzen baitu indarkeria-mota hori; espainiar Estatuak 2014an berretsi zuen hitzarmen hau.
- Bertan jasotako neurriei behar bezala erantzuteko tresna osagarriak izan daitezke Emakumeen Etxeak. Zehazki, **12. artikuluko 6. puntuan** jasotzen da *“aldeek beharrezko neurriak hartuko dituztela emakumeen ahalduntzea sustatzeko programak eta jarduerak bultzatzeko”*, edota 18. artikuluan aipatzen da *“lokal erreferente berberean ezartzea komeni direla emakumeentzako babes- eta laguntza-zerbitzuak”*.

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUAK

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen** xede nagusia da, berdintasunerako eskubidea praktikan aplikatzea.

Bertan, Legeak ezartzen du **Aldundien betebeharrerako bat dela tokiko berdintasunerako politikak sortzeko eta egonkortzeko sustapen-lana** egitea.

- **6.8 artikuluan** hau jasotzen da: *"Sustapen-neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki-entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko"*.

Bestalde, 2022ko martxoaren 3ko lege erreforman, non 4/2005 Legea, emakume eta gizonen berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzkoa berritzen den, 3. artikuluan arautzen diren **printzipioetan** berrikuntza hauek jaso dira besteak beste:

- **Emakumeen ahalduntzea:**  
**3.11 artikuluan** hau jasotzen da: *"Euskal botere publikoek baldintzak ezarri behar dituzte eta behar diren egokitzapenak egin behar dituzte emakumeak ahalduntzen laguntzeko, emakumeen dibertsitatea kontuan hartuta. Lege honen ondorioetarako, emakumeen ahalduntzetzat jotzen da emakumeek emakume izateagatik jasaten duten desberdinkeria eta diskriminazio-egoera estrukturalaz jabetzeko egiten duten prozesua, banaka zein modu kolektiboan, bai eta beren bizitzetarako erabaki estrategikoak hartzeko eta bizitzaren zenbait alderditan generoan oinarritutako desberdinkeria eta diskriminazioa sendotzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten eskumena, boterea eta kontrola eskuratzeko prozesua ere"*.
- **Gardentasuna, parte-hartzea eta kontu ematea:**  
**3.13 artikuluan** hau jasotzen da: *"Euskal botere publikoek ezinbestean sustatu behar dute talde feministen eta emakume-taldeen, gizarte-eragileen eta, oro har, herritar guztien partaidetza eta elkarrizketa politika publikoak garatzerakoan"*.

Horrez gain, lege horren erreforman **zuzenean Emakumeen Etxeei** egiten zaio erreferentzia 7.artikulutan, eta zehazten du Emakumeen Etxeak **udal eskumenekoak** direla.

- **7.i) artikuluan** ezartzen du, udalen ardura dela emakumeen ahalduntzea helburu duten zerbitzu eta programak eskaintzea, jabetze eskolak, Emakumeen Etxeak edo sare komunitarioak bezalakoak.

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO ARAUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauan aurrez aipatutako **emakumeen ahalduntzea eta berdintasunaren aldeko emakume-elkarteen parte-hartzea** sustatzea zehazten ditu Foru Aldundiaren eginbeharren artean.

- **8.3.l) artikuluan** zeregin hau ere ezartzen dio: *“Neurriak ezartzea berdintasunaren aldeko emakumeen elkarte mugimendua indartzeko eta emakumeen jabekuntza zein partaidetza sozio-politikoa sustatzeko”*.
- **18. artikuluan** Berdintasunerako Organoaren jarduera-esparruez hitz egiten da, eta hau jasotzen da:
  - 1.b) artikuluan *“Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoak babestea”*.
  - 1.e) *“Sareko lankidetzak-espazioak martxan jarri eta garatzea, bai maila politikoan eta bai maila teknikoan, era horretan koordinazioa, trukea eta ikaskuntza sustatzeaz gain, udal- eta lurralde-mailan lan-prozesu kolektiboak abian jartzeko”*.
  - 2.f) *“Emakumeen jabekuntza indibidual eta kolektiboa sustatzen duten espazio eta prozesuak sortu eta finkatzen laguntzea, bereziki emakume gazteena eta ahultasun larrienean dauden emakumeena”*.

Bestalde, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Planean**, emakumeen ahalduntzearen esku-hartze ildoaren **8. Helburu Estrategikoa** *“Gipuzkoako emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa indartzea”* da.

- Bertan, helburu operatiboetako bat hau da: *“Emakumeen elkarten, Emakumeen Etxeen eta ahalduntzeko eskolen lana indartzea, emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa garatzeko tresna gisa”*.
- Eta hain juxtu aurreikusitako ekintzetako bat da **“Emakumeen Etxeen lurralde-mailako eredu propio bat garatzea”**.

### 3. Marko kontzeptuala

#### Emakumeentzako espazio propioa



Emakumeek gizonen aukera berdinak izateko 1929an Virginia Woolfek aldarrikatu zuen emakumeek autonomia ekonomikoa eta gela propio bat behar zutela (*Una habitación propia*, 1929). Norberaren espazioa, seguru sentitzeko, bakoitzaren gaitasunak garatu ahal izateko, gizonetik lehiatik kanpo.

Espazio babestu bat, seguru bat, berdinen arteko sozializazioa izaten da talde terapien ezaugarri nagusietakoa.

Aspalditik existitzen ziren arren, emakumeen arteko babes taldeak asko ugarritu ziren 70.hamarkadan. Testu feminista esanguratsua izan zen *“Nuestros Cuerpos, nuestras vidas”*,

Bostongo emakumeen kolektiboak argitaratutakoak, esaterako. Talde hauetan, emakumeek beren arazo eta beharren inguruan hitz egiten zuten, beren burua formatu, ikasi, hausnartu eta gizartean aldaketak eragiteko antolatu ere.

XXI. mendeko emakumeen etxeek aurreko mendeetan emakumeek erabilitako estrategiak erabiltzen jarraitzen dute, gaur egun oraindik beharrezkoak izaten jarraitzen dutelako.

#### Emakumeen ahalduntzea

Bestetik, estrategia honen baitan, ezin esan gabe utzi Emakumeen Etxeak “ahalduntzeko” ekipamenduak direla. *Emakumeen ahalduntzea* kontzeptua 1985ean Nairobin egin zen zabaltzen, Emakumearen inguruko NBEren konferentzian. Kolektibo zaugarrien egoerak hobetzeko, pertsona eta kolektibo horiek gaitasunak handitzeaz ari da<sup>1</sup>, gizartean posizio sozial hobea lortzeko helburuarekin. Horretarako, boteretze edo ahalduntze estrategia ezberdinak sustatu ohi dira: ahalduntze ekonomikoak, laguntza bidezkoak, ezagutza mailakoak, bitarteko material edo inmaterialen bidezkoak, edota ahalduntze politikoak, botere eta ordezkaritza mailak aitortuz.

Ahalduntze indibidualaren bidez kolektibo oso baten egoera hobetzea bilatzen da, baita hauek posizio sozial eta politikoa handitzea ere. Emakumeen Etxeen zeregina horixe bera izaten da, eta horrela aitortzen zaie Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Lege berrituan<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> *Emakumeen boteretzea: saiaketak eta zailtasunak*. Mainer Zilbeti eta Eva Martinez, Uztaro, 61. 2007.


<sup>2</sup> 2022ko martxoaren 3an, 1/2022 Emakume eta gizonen berdintasunerako legearen bigarren moldaketa onartu da.

### Demokrazia parte hartzaileen teoriatik praktikara

Egungo sistema politikoak krisian daudela esaten dute aditu askok<sup>3</sup>. Batzuek ikuspegi ekonomikoak eraginda dela diote, pandemiak eraginda, bereizkeriek eraginda, Ukrainako krisiak eraginda beste batzuk. Baina ondorioa berdina da, demokrazia krisian dago.

Krisi horri aurre egiteko herritarren inplikazioa sistema politikoan sustatu nahi da. Munduko 77 herrialderen eta 106 lurralderen artean Open Government Partnership erakundea sortu zen 2011 urtean herritarrak gobernuetara hurbildu, gardentasuna bultzatu eta erakunde publikoak demokratizatzeko asmoz. Horrez gain, Gobernantza irekia, gobernantza komunitarioa, herritar aktiboak, gardentasuna eta parte hartze politikak dira egungo Europako Gobernuen, baita Euskal Herriko instituzioen etorkizunerako erronketako bat. Baina zaila izaten da teoriatik praktikara eramatea.

Adituen hitzetan<sup>4</sup>, demokrazia parte hartzailea sustatzeko eguneroko bizitza arautzen



duten politikan herritarren ikuspegi, ezagutza teknikoarena eta politikariena jarri behar dira harremanetan. Horretarako, informazioaren eta kudeaketaren gardentasuna, herritarren parte hartzea eta instituzioen, herritarren eta arteko elkarlana sustatzea dela bidea ezartzen du Europar Batasunaren estrategiak. Horrela ezartzen dute gardentasunaren eta

gobernu irekien inguruko foru arauak.

Gipuzkoako emakumeen etxeen ezaugarria da hiru eragile hauek bat egiten dutela ekipamendu hauen diseinuetan. Izan ere, emakume taldeek sustatu arren, normalean udal teknikariaren eta zinegotziaren parte hartzea eskatuz abiatzen dira prozesuak, baliabide publikoak ezarri. Udalek abiatutako prozesuan direnean, ekipamendua ireki aurretik, emakume elkarteekin egin ohi dira ekipamenduaren nondik norakoen inguruko bilerak, alde teknikoarekin batera. Bilera hauetan informazio asko partekatzen da; eraikin publikoen egoera, obrarako aurrekontua, kudeaketa sistema, eta abar. Harremanak eraikitzen dira eta elkarlanaren bidez eraikitzen da proiektua.

<sup>3</sup> Anabel Diez Navarrete, la crisis del sistema político tradicional, 2022.

Paolo Gentiloni, Comisario europeo de economía, 2022.

Amaia Pérez Orozco, subversión feminista de la economía, 2014.

<sup>4</sup> Parte Hartuz, EHU. / Open Government Partnership /

Praktika horren emaitza da ekipamendu hauek babes maila oso altua izatean dutela emakumeen eta herritar antolatuen artean, eta normalean, prozesuaren ondorioa izaten dela alderdi politiko, tekniko eta herritarren arteko harremanak eta komunikazioa hobetzea. Prozesu hauek, aurrera begirako lanketak egiteko bideak irekitzen ditu, bestelako jarduerak elkarrekin egin ahal izateko.

Horrez gain, emakumeen etxeetan emakumeen iritziak kontuan hartzeko interlokuziorako espazioak izaten dituzte gehienetan. Kontseiluak, mahaiak, batzordeak, edo bestelako izenak dauzkatenak. Batzuetan emakume antolatuak biltzen dira, beste batzuetan norbanakoak edo berdintasunaren aldeko eragileak. Espazio hauetariko batzuk arautuak daude, etxearen funtzionamendu edo jarraibideetan, beste batzuetan era naturalean funtzionatzen dute.

### Komunitateak indartzea helburu

Komunitateak indartzearen bidez, gizarte berdinzaleago bat sustatzeko politikak bultzatu behar direla proposatzen du Eric Klinenberg<sup>5</sup> soziologoak. Izan ere, zatitutako gizarteak batzen laguntzen baitu ekintza komunitarioak.

Autore honek aipatzen du komunitatea sortzeko herritarren artean ez ezinbesteko baldintza proiektu komun bat konpartitzea, ez eta berdin pentsatzea ere. Are gehiago, gizarte berdinzaleagoak sustatu eta komunitateak indartzeko ezberdinen arteko harremanak sustatzeko baliabideak behar direla esaten. Baliabide hauei “infraestruktura sozialak” deitzen die. Infraestruktura sozialak kultur etxeak izan daitezke, liburutegiak, plaza publikoak edo berdeguneak.

Horrela dio “Palacios del Pueblo” liburuan (2020). *“La pieza que le falta al puzzle es la infraestructura social: construir espacios donde pueda reunirse todo tipo de gente es la mejor manera de reparar las fracturadas sociedades en las que vivimos hoy en día”*.

Sergio Cabrerak 1993an plazaratutako “La estrategia del Caracol” pelikulak ondo erakusten du nola elkarren artean harremana ez duen komunitate bat batzen den beren etxearen defentsan, sentimendu bateratua, komunitatea sortuz.

Emakumeen Etxeak azpiegitura publikoak dira, irekiak, baina komunitatean errotuak. Erabiltzaileek haiena sentitzen dute, ezberdinen artean elkartzeko aukera ematen duena.



<sup>5</sup> “Palacios del pueblo, políticas para una sociedad más igualitaria” Eric Klinenberg, Capitan Swing, 2021.

Emakumeen Etxeen prozesuetan parte hartu dutenek, normalean ekipamenduaren aldeko sentimenduak dituzte, eta gerora batzuek erabilerarik egin ez arren, zainduko dituzten espazioak dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko herritarren partaidetzarako bulegoak sustatu duen “Ekintza Komunitarioaren” inguruko lanketarako dokumentuan<sup>6</sup> esaten da ekintza komunitarioa gizarte erronkei modu kolektiboan heltzen dioten ekimen eta proiektuak direla. Emakumeen Etxeek, oro har, gizartean emakumeek bizi dituzten sexu bereizkeriei modu kolektiboak aurre egiteko erremintak eta baliabideak eskaintzea dute helburu. Zentzu horretan, dokumentuan proposatzen diren 7 printzipio metodologikoak betetzen dituztela esan daiteke.

Harrera egitea: Harrera gune bat egon ohi da eta koordinatzaile edo dinamizatzaile bat egoten da ekipamenduak zabalik daudenean.

Ekintza erdigunean jarri: Jabekuntza eskolek, zerbitzuek eta ahalduztze taldeek dute garrantzia eta programazioa emakumeen ekarpen eta iritziekin antolatu ohi dira.

Presentzia izan: Lau paretan dituzten ekipamenduak izanda, presentzia iraunkorra dute herrian.

Bilaketara irten: Batetik, prozesu parte hartzaileen bidez oinarritzen direnez, parte hartzaileei deialdia egin ohi zaie ekipamenduak ireki aurretik. Ondoren, etxe batzuek bisita gidatuak egiten dituzte, partaide berrientzat, ikastetxeentzat eta gizarte zerbitzuentzat, besteak beste.

Jendearekin bere indarguneetatik lan egin: Horixe egiten da ahalduztze taldeetan. Horrez gain, etxeen bizitzetan parte hartzeko batzarrak eta koordinazio guneak egon ohi dira.

Barruko pertsonekin lan egin: Zerbitzuetara eta kontsultak egitera etortzen diren emakumeentzat askotan bidea izaten da ikastaroetara apuntatzea, eta batzuek, hortik haratago, talde eragileetan parte hartzera pasatzen dira.

Lidergo erraztaileak: herriko mugimendu feminista eta emakume taldeekin harremana izaten dute etxeek. Horrela, antolatutako eta ez antolatutako lider edo pertsona aktiboek etxearen bizitzan lan egiteko aukera izaten dute, administrazioarekin harremanetan.

---

<sup>6</sup> Ekintza komunitarioa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa.



## 4. Emakumeen Etxeak zabaltzeko prozesuak

### 4.1 Prozesuen sorrera

Emakumeen Etxeak erakunde publikoen nahiz herritarren arteko elkarlanetik sortzen dira. Gipuzkoako Etxeen jatorrian **bi sortze-prozesu ezberdin** daitezke. Kasu batzuetan, mugimendu feminista izan da hasieratik eskakizuna egin eta Etxea lortzeko prozesuaren lidergoa eraman duena. Beste batzuetan, aldiz, Etxea berdintasun-sailaren bultzadaren ondorioa izan da, Tokiko Berdintasun Planek edo udal Programetan jaso zegoelako. Kasu hauetan, udalek eta emakume-taldeek osatzen duten berdintasun kontseiluekin elkarlanean<sup>7</sup> egin dira prozesuak.


Emakumeen Etxeen **sortze-prozesuak gako garrantzitsuak** dira. Sorburu horiek erabat lotuta daude **udalerrri bakoitzaren ezaugarriekin**, eta herri horretan mugimendu feministak eta emakume-taldeek duten indarrarekin; edozein modutan, garrantzitsua da hasierako unetik bertatik egitasmoa benetako beharretatik abiatzea<sup>8</sup>.

Ekipamendu hauen eskatzaile edo sustatzailea edonor izanda ere, udalaren baliabideekin dinamizatu dira prozesuak, eta guztietan aurreikusi da emakumeen parte-hartzea eta berdintasun sailarena. Bi salbuespen daude: Arrasate eta Eibarren kasuak. Bi kasu hauetan, 2000.urteen bueltan, mugimendu feministaren aldarrikapena izan dira ekipamendu hauek, eta negoziazio politikoen ostean ireki dira Etxeak.

Horregatik, Emakumeen Etxeen sorrerak udalerrri- edo eskualde-mailan irudikatu eta eraiki dira orain arte, tokian toki **behetik gora garatzen** joan diren eta udalerrri bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokitutako **partaidetza-prozesuen bidez**. Zentzu honetan, gainontzeko udal-ekipamenduen kasuan ez bezala, herritarrek egitasmo honekin lotutako zehaztapen guztiak definitzen hartu dute parte (Etxearen helburuak, balio eta printzipioak, ezaugarriak, kudeaketa-eredua...), prozesu horiek etorkizunean **elkarlanean jarraitzeko hazia erein** dute, eta, funtsean, lan egiteko eta **politika publikoak egiteko modu jakin bat finkatu** dute.

<sup>7</sup> *Indarkeria matxistari lotuta, Emakumeen Etxeen zeregina. Diagnostikoa eta indartzeko proposamenak*. EDE Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2018an egindako ikerketa.

<sup>8</sup> *Construyendo articulación feminista en Gipuzkoa. Algunas ideas para la puesta en marcha de Casa de las Mujeres*. Monika Plazaola, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016an egindako ikerketa.



## 4.2 Prozesuen ezaugarriak

### Prozesuko parte hartzaileak:

Oro har, partaidetza prozesuak irekiak izaten dira. Batzuek espreski emakumeei egiten diete deia, besteek emakume elkarte eta eragile feministei, eta beste batzuk berdintasunaren aldeko herritar orori.

Aipatzekoa da Hernaniren kasua, zeinetan prozesua Emakumeen Etxeen prozesu gisa abiatu bazen ere, Kulturarteko Plaza Feminista bezala bukatu zen. Horrek, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko elkartegintza zabaldu egin du, kulturen arteko harremanak eta arrazakeriaren kontrako mugimenduak bat eginez, baita genero identitate anitzak aldarrikatzen dituzten mugimenduek ikusgarritasuna irabaziz ere.

Zenbakiei erreparatuz gero, herrien tamainaren arabera aldatu egiten da partaidetza, baina orokorrean, 20-30 bat partaide izaten dituzte. Gehiago zabala emakumeak izaten dira, herrian bertan jaioak, asko, antolatuak. Baina badira antolatu gabekoak, beste herrialdeetan jaiotakoak, eta ez bitartzat dutenak beren burua.

Adin ezberdinetako emakumeek parte hartu arren, gehien bat 35-55 adin tartean kokatzen dira gehienak. Jubilatutako gehiago egon ohi dira ikasleak baino.

### Dinamizazioa:

Lehenengo Emakumeen Etxeen kasuetan udaletako berdintasun teknikariak hartu zuten prozesuak koordinatzeko ardura. 2011tik aurrera, gero eta gehiago erabili da kanpo-aholkularitza baten laguntza.

### Prozesuen iraupena:

Partaidetza prozesuak gutxienez deliberatzeko prozesuak izanik, hainbat saio izaten dituzte. Prozesu gehienek urte bat baino gehiago behar izaten dute hasten direnetik eraikina ireki bitarte.

Izan ere, ohikoa da prozesuek bi fase izatea. Lehen fasearen bidez, ekipamenduak duen babes maila neurtu eta ekipamenduaren ezaugarri nagusiak adostu ohi dira. Ondoren, geldialdi bat egon ohi da, lokala edo eraikina topatu, aurrekontua zehartu, obrak esleitu eta abar egiteko.

Bigarren fase batean, eraikinaren kokapena eta ezaugarriak ezagututa, espazioaren antolamenduan, zerbitzu motetan eta ekipamenduan emakumeen parte hartzea nola bermatuko den eztabaidatu ohi da.

Bilera kopuruei dagokionez, gutxi gorabehera, lehen fasean 3 eta 6 bilera ireki egiten dira, eta bigarren fasean 3 eta 8 bileren artean.

### Eztabaida gai esanguratsuenak:

Emakumeen Etxeen misioa eta zerbitzuak zehaztea helburu duten prozesu hauetan korapilo handienak **kudeaketa gaietan** zentratu izan dira. Bi ideia nabarmentzen dira prozesuetan.

Batetik, ekipamenduak emakumeen ahalduntzea sustatzeko misioa burutzeko, **emakumeen parte hartzea bermatzeko ekipamenduak izatea nahi da**. Horregatik, Etxearen kudeaketaren parte emakumeak eta emakume taldeak izatea nahi da gehienetan.

Bestalde, **ekipamendu publikoak izatea** da bigarren aldarrikapen nagusia. Hau da, irekiak, ezberdinen artean elkartzeko topalekuak. Horregatik, ez da eskatzen emakume elkarte edo erakunde baten lokala izatea. Baina era berean, ez da nahi izaten “zerbitzuak kontsumitzeko” ekipamendu klasikoak izatea, hori ez baita ahalduntzeko estrategiaren parte.

Beste tentsio garrantzitsua **espazioa erabakitzea** izaten da. Oro har, espazio egokiak bilatzea izan ohi da negoziazioen alderdirik zailenetakoa.

Lokalen tamaina, irisgarritasuna, erabiltzeko aukera (eta horrekin lotuta, irekiera ordutegia edo giltzen erabilera) izaten dira eztabaidarako gai garrantzitsuak. Eztabaida hauek, ekipamendua ireki ostean jarrai dezakete, Eibar edo Donostia kasu.

Azkenik, **Etxeen izenak erabakitzea eztabaida handia** ekartzen du, bakoitzaren bisioa islatzen baita izenaren bidez. Izenak izana dauka, eta feminismoaren barruan egon ohi diren eztabaidak erreproduzitu ohi dira ekipamenduaren izenaren aukeraketarekin batera.

Duela hamarkada batetako prozesuetan gizonen parte hartzearen inguruan asko hitz egiten zen. 2020. hamarkadako prozesuetan, aldiz, transexualitateaz eta identitate ez-

bitarren inguruan hitz egin da prozesuetan zehar. Aipatu beharra dago, eztabaida hauek askotariko emakumeen eta feminismo anitzen artean, herrian bertan ematean, sare sozialetan ez bezala, lasaitasunez, elkar entzunez eta errespetuz egin direla.

Azken boladan eztabaida berri bat ere badago mahai gainean, **aniztasunaren gaia**. Kultur aniztasuna edo adin tarteari dagokiona gehien bat. Izan ere, prozesuetan parte hartzen dutenen gehiengoak bertan jaiotakoak dira, 35-55 adin tartekoak, eta profil antzekoak. Beste emakumeengana nola iritsi bilatzen saiatzen dira prozesu hauetan.

Jarraian, Gipuzkoako zenbait Emakumeen Etxeen prozesuetako zenbait argazki aurkezten ditugu:



Donostia, 2010



Errenteria, 2016



Hernani, 2017



Zumaia, 2019



Tolosaldea, 2020



Irun, 2021

### 4.3. Emakumeen Etxeen partaidetza prozesu baterako eredu bat

Azpimarratzekoa da Emakumeen Etxe bakoitzaren prozesua ezberdina dela, herri mailako ekipamenduak izanik, tokiko errealitatera moldatu behar baitira prozesu parte hartzaileak. Beraz, honako eredia ez da errezeta bat zuzenean aplikatu beharrekoa, prozesu baterako gomendio sorta baizik.

#### PROZESUAREN DISEINUA eta PRESTAKETA:

Prozesua diseinatu eta prestatzeko, normalean **lantalde bat sortu** ohi da. Partaideak, berdintasunerako zinegotzia, Berdintasun teknikariak dira, gutxienez. Horrez gain, emakumeen aholku kontseilua / berdintasun kontseilua edo bertako partaideren bat egoten da, edota kanpo-aholkularitzaren bat.

Lantalde honen funtzioa izaten da prozesua prestatzea:

- *Zertarako nahi dugu prozesu hau? Zeintzuk dira prozesuaren helburuak?*
- *Nor deituko dugu prozesu honetan parte hartzera? Nola zabalduko dugu deialdia?*
- *Zeintzuk izango dira eztabaida edo hausnarketarako gai garrantzitsuak? Eta zein gai izango dira erabakitzeke eta zein ez?*

#### GOMENDIOAK:

1. Komeni da prozesua abiatzen duen lantaldea iraunkorra izatea ahal den heinean, saioz saio erabakitzen diren kontuen jarraipena izan dezaten.
2. Komeni da, lehenengo saioa prozesua adosteko izatea. Izan ere, prozesuaren bidez lortu nahi dena adostea, lan egiteko moduetan ados jartzea, eztabaida gaiak egokiak diren adostea, baita egutegia eta saioen iraupena ere.
3. Komeni da, ekipamenduaren inguruan jada erabakita dagoena alde zuzenetik esatea, espektatiba faltsuak ekiditeko. Hau da, lekua hitzartua badago, edo kudeaketa eredia edo ekipamenduaren helburuak, aurrez aipatzea komeni da.
4. Komeni da, udaletxearen aldetik malgutasuna dagoela adieraztea, hau da, dena itxita eta erabakita baldin badago, prozesuaren funtzioak interesa gal dezake.
5. Komeni da prozesu osoan zehar gardentasuna bultzatzea, aktak jaso eta zabaltzea, aurrez aurre prozesua jarraitzen ezin dutenek prozesuaren berri izan dezaten.

**GAIAK:** Gogoratu gaiak banatzeko proposamena dela honakoa. Beste era batera ordenatu daitezke gaiak.

Eztabaida gaiak 5 bloketan eman ohi dira:

- 1. EKIPAMENDUAREN proiektua:** Helburuak, Printzipioak, Zerbitzuak, Programa (...).
- 2. EKIPAMENDUA PARTE-HARTZAILEA:** Erabiltzaileak eta parte-hartzaileak, kudeaketa-eredua, parte-hartzeko sistema, gardentasuna eta kontu ematea (...).
- 3. EKIPAMENDUAREN ALDERDI FISIKOAK:** Lokalaren ezaugarriak, espazioaren banaketa, Berdintasun Sailaren kokapena, espazioaren erabilera emakumeen eta elkarteen eskutik (...).
- 4. Ekipamenduaren baliabideak eta bermeak:** Zein baliabide, aurrekontu, zerbitzu langile izango dituen ekipamenduak, nola bermatu hauek betetzea (...).
- 5. Komunikazioa:** Ezagutzera ematea, Etxearen izena, inaugurazio festa (...).

## 5. Emakumeen Etxeen gobernantza ereduak

Gipuzkoako Emakumeen Etxe **guztiak dira publikoak**. Hau da, emakume guztiei zabaldutako ekipamenduak dira, kuota edo sarbide murrizturik gabe.

Era berean, guztiek aurreikusten dituzte emakumeen partaidetzarako egiturak, espazioak eta denborak, eta funtzionamendu berezi hau babeste aldera, gehienek **idatziz jasota** dituzte funtzionamendu arauak.

Kudeaketa-sistema ezberdinak daude; udal langileen bidez kudeatutako ekipamenduak, ko-gestioa edo kudeaketa partekatua bidezko sistema dutenak, eta azkenik, kudeaketa azpikontratatuta duenik ere bada.

Kasu honetan, herriko mugimendu feministarekin sinatutako hitzarmen ekonomiko baten bidez, mugimendu feministak ekipamenduaren kudeaketaren parte garrantzitsua darama. Eredu hau Bartzelonatik jaso da, bertako partaidetzarako legean aurreikusten diren ekipamendu publikoen kudeaketa eredu bat baita.

Jarraian kudeaketa-ereduak modu sintetikoan aurkezten dira. Esan beharra dago Etxe bakoitzaren eredu ezberdina dela eta ezin izan ditugula denak jaso. Honakoa tipifikazio bat da. Orokorrean hiru formula ikus daitezke ekipamenduen kudeaketarako:

### 5.1 Emakume mahaia / Berdintasun kontseilua



Eredu honetan, **kudeatzaile nagusia udala da**, zuzeneko kontratazioen bidez, edo azpikontratatuaren zerbitzuaren bidez. Azpikontratatuaren kasuan, (Azpeitia eta Zarautz), esleipena egiteko orduan emakumeen eta elkartegintza feministekin harremana izatea saritzen da.

Partaidetzarako organo nagusi bat egoten da eredu honetan: **Emakumeen mahaia\***. Emakumeen mahaitik lantaldeak sortzen dira maiz, programazioaz, jabetze eskolaz edo indarkeria matxistaz arduratzen direnak, besteak beste.

Berdintasun arloak deitzen ditu bilerak, bi edo lau urtean, udalaren arabera, eta parte hartzaileak herriko emakumeak eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteak izatean dira.

**Eredu hau dago:** Azpeitia, Eibar, Zarautz, Urola Garaia.

*\*Udal batzuetan, berdintasun kontseiluak betetzen du emakumeen mahaia: Argostea, Elgoibar, Hernani*

## 5.2 Emakumeen Etxearen koordinaziorako guneak



Eredu honetan, ekipamenduaren langile eta zerbitzu guztiak publikoak dira. Hala ere, **kudeaketa-ereduan emakumeen parte hartzea askoz handiagoa da.**

Koordinaziorako egitura gehiago daude. Informazioaren trukaketa egiteaz gain, emakumeek etxearen bizitzan aktiboki parte hartzeko aukera gehiago dute emakumeek.

Kasu batzuetan, emakumeek elkarte propio bat sortzen dute Emakume Etxeko erabiltzaileen ordezkari legal bat izateko.

Partaidetza organo nagusia izaten da: **Etxeko Asanblada edo Elkarteko Batzarra.**

Berdintasun arloak deitzen ditu bilerak, bi-lau urtean, udalaren arabera, eta parte hartzaileak herriko emakumeak eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteak izatean dira.

Horrez gain, Asanbladatik eratorritzen diren **lantaldeak** daude. Lantalde hauek autonomoak dira, eta batzarrari ematen dizkiete kontuak.

Azkenik, **mahai politiko bat** egon ohi da, etxeko erabiltzaile edo sustatzaileen eta udaleko politikari eta teknikariek elkartzeko. Espazio honen helburua partaidetza prozesuan erabakitakoaren jarraipena egitea izaten da. Urtean bi aldiz elkartu daitekeen markoa da.

**Eredu hau dago:** Errenterian, Tolosaldean eta Irunen.





### 5.3 Elkarrekin batera kudeatutako guneak



Eredu honetan ekipamenduaren kudeaketa **udalaren eta Emakumeen Etxea Elkarrearen artean kudeatzen** dute.

Eredu honetan **Emakumeen Etxea elkartea** sortu ohi dute prozesuan parte hartzen duten emakume eta elkarrearen artean. Helburua izatean da entitate juridiko propioaren bidez, interlokuzioa bateratzea eta ekipamenduaren kudeaketan zuzenean parte hartzea.

Horrela, etxeetan dagoen koordinatzaile edo **dinamizatzailea elkarteko langilea izatean da** eta ez udalarena.

Hala ere, eraikina udalarena izaten da, publikoa eta jabeakuntza eskola, ahalduntze taldeak eta zerbitzuak udalak jartzen ditu.



Hemen ere partaidetza organo nagusia **Etxeko Asanblada edo Elkarteko Batzarra dira**, eta horrez gain lantaldeak egon ohi dira ekipamenduaren egunerakoan lan egiteko.

Koordinaziorako mahaia politikoa egon ohi da, Elkartea berdintasun zinegotziarekin eta teknikariarekin elkartzeko.



**Eredu hau dago:** Donostian, Zumaian, Astigarragan.

## 6. Emakumeen Etxeak martxan jartzeko orientabideak

Emakumeen Etxeak martxan jartzeko ezinbestekoa da bai sortze prozesua eta baita prozesuaren emaitza izango den ekipamenduaren kudeaketa eredua ere herri horretako errealitatera egokitutakoa izatea.

Hala ere, lurralde mailako eredura ahalik eta gehien gerturatzeko helburuarekin, orientabide batzuk zehaztu dira, ez ikuspegi hertsi batekin jarraitu beharrekoak, baina bai malgutasunez bakoitzaren errealitatera aplikatzeko.

### 6.1 Emakumeen Etxeak sortzeko prozesurako orientabideak

#### 1. METODOLOGIA:

- **Lantalde bat eratzea:**
  - Helburua  
Emakumeen Etxea sortzeko prozesua diseinatu, jarraipena egin eta ebaluatzea.
  - Osaketa:  
Gutxienez, Berdintasunerako zinegotzia eta berdintasun teknikaria. Horiez gain, emakumeen aholku kontseilua / berdintasun kontseilua edo bertako partaideren bat egotea ere gomendatzen da, edota kanpo-aholkularitzaren bat.
  - Funtzionamendua
    - Talde iraunkorra izatea.
    - Bilera maiztasuna parte hartzaileen erritmoetara egokitzea.
    - Gardentasuna bermatzea.

#### 2. EDUKIA:

- Sortze prozesuan hausnartu beharreko edukia:
  - Kudeaketa eredua
  - Espazioa
  - Ekipamendua
  - Eskainiko diren zerbitzu eta baliabideak
  - Ordutegia
  - Baliabide pertsonalak

#### 3. PARTE HARTZEA:

- Prozesua ahalik eta parte hartzaileena izatea. Ikus 4.3 puntua.

#### 4. KOMUNIKAZIOA:

- Prozesua ezagutarazteko neurriak hartzea, komunikazio plan baten bidez.

## 6.2 Emakumeen Etxeen kudeaketarako orientabideak

- **Udal ekipamendu publikoak** izatea, emakume guztiei zabaldutako ekipamenduak alegia.
- Udalak, emakume elkarte eta mugimendu feministaren parte hartzea bermatzeko **eredua zehaztea**. Aukera ezberdinak daude:
  - Kogestioa.
  - Partaidetzarako egiturak, espazioak eta denborak idatziz jasotzea.
- Udalko **berdintasun egituraren** barnean kokatzea.
- **Dinamizatzailea(k) ziurtatzea**. Bere zeregin nagusia emakumeei harrera egitea izango da. Bere funtzioak aurrez zehaztea garrantzitsua izango da.
- Udaleko beste departamenduekin **lankidetz**a garatzea. Batik bat, Gizarte Zerbitzuekin, indarkeria matxistari aurre egiteko osagarritasuna eta koordinazioa indartzeari begira.
- Herriko beste zerbitzu eta baliabideei buruzko informazio eguneratua eskaintzeko, herriko eragileekin **lankidetz**a **sareak** eratzea.


**ERANSKINA:**

**GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETXEAK (FITXAK)**

## ERANSKINA: Gipuzkoako EMAKUMEEN ETXEAK (Fitxak)

Gaur egun, 2022. urtean, Gipuzkoan 11 Emakumeen Etxe daude, eta beste hiruk 2023an irekiko dituzte ateak.

Etxe bakoitzeko fitxa bat aurkituko duzu atal honetan. Fitxa horietan parte- hartze prozesuaren berri ematen da, bai eta ekipamendu hauen kudeaketa parte hartzaile edo gobernantza-ereduen inguruko informazioa ere. Esan beharra dago denborak eta egoera sozialak eragina dutela Etxeen funtzionamenduan, eta beraz, beti ez dutela berdin funtzionatzen, eta etxe bakoitza testuinguru ezberdinean sortu dela, baliabide oso ezberdinekin. Horrek ere eragina du sortze prozesuetan eta parte hartzerako guneetan.



EMAKUMEEN ETXEAK DITUZTEN UDALERRIAK	2023 urterako EMAKUMEEN ETXEA IREKITA IZATEA AURREIKUSTEN DA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrasate (2003)</li> <li>- Eibar (2004)</li> <li>- Donostia (2010)</li> <li>- Azpeitia (2011)</li> <li>- Hernani (2013)</li> <li>- Errenteria (2019)</li> <li>- Urola Garaia -Mankomunatua- (2019)</li> <li>- Zarautz (2020)</li> <li>- Zumaia (2021)</li> <li>- Astigarraga (2021)</li> <li>- Elgoibar (2021)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irun (2022-2023)</li> <li>- Tolosaldea – Mankomunatua- (2022-2023)</li> <li>- Usurbil (2023)</li> <li>- Oñati (2022-2023)</li> </ul>

# Arrasateko Emakume Txokoa



## 6.1. Arrasateko Emakume Txokoa

### INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Arrasate
<b>Biztanle kopurua:</b>	22.073 biztanle
<b>Etxearen izena:</b>	Emakume Txokoa
<b>Sortze-data:</b>	2003
<b>Helbidea:</b>	Jose Luis Iñarra z/g. 20500 Arrasate
<b>Ordutegia:</b>	<b>Astelehenetik ostiralera:</b> 10:30-13:30/15:00-18:00 <b>Ostiraletan:</b> 10:00-14:00
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	<b>Telefonoa:</b> 943 79 41 39 / 618 20 62 33 <b>Emaila:</b> emakumetxokoa@arrasate.eus
<b>Sare sozialak:</b>	<b>Facebook:</b> @Arrasateko Emakume Txokoa <b>Twitter:</b> @emakumetxokoa
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Emakume Txokoan

**SORTZE-PROZESUA:**

<b>Noiz hasi zen?</b>	2001	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2003
<b>Bilera-kopurua:</b>	Ez ziren bilerak erregistratu.	<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	Ez ziren erregistratu.
<b>Nork sustatu zuen?</b>	Arrasateko emakumeen mahaia. Arrasateko mugimendu feministak.		
<b>Landutako gaiak</b>	Emakumeen espazio propioa izateko beharra.		
<b>Besterik</b>	Partaidetza prozesua baino udalarekin izandako negoziazioen ondorioz lortu zen Etxea. Baita zenbait mobilizazioen bidez ere.		

**EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:**

<b>Ekipamenduaren kudeaketan emakumeek eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministak parte hartzeko espazioak daude? Nolakoak dira? Zer dago beren erabakien esku?</b>
Udalan dagoen Berdintasunerako kontseiluaren bidez lantzen dira Emakume Txokoko gaiak.
<b>Zer eskaintza dago emakume-talde eta mugimendu feministarentzat Etxean?</b>
Espazioaren erabilera egiteko aukera eta Emakume Txokoko egitarauan haien jarduerak ezagutaraztekoa.

# Astigarragako Emakumeon Etxea



## INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Astigarraga
<b>Biztanle-kopurua:</b>	7.120 biztanle
<b>Etxearen izena:</b>	Astigarragako Emakumeon Etxea
<b>Sortze-data:</b>	2021/01/17. Irekiera-data: 2021/05/17
<b>Helbidea:</b>	Kale Nagusia, 23. 20115, Astigarraga.
<b>Ordutegia:</b>	- Astelehenetan: 17:00-19:00 - Astearte, ostegun eta ostiraletan: 10:00-13:00
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	<b>Telefonoa:</b> 648 417 157 <b>Emaila:</b> <a href="mailto:emakumeonetxea.astigarraga@gmail.com">emakumeonetxea.astigarraga@gmail.com</a>
<b>Sare sozialak:</b>	<b>Facebook:</b> emakumeonetxea.astigarraga <b>Instagram:</b> emakumeonetxea.astigarraga
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Kale Nagusia, 48, Kontxa-enea



**SORTZE-PROZESUA:**

<b>Noiz hasi zen?</b>	2020/04	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2021
<b>Bilera-kopurua:</b>	25	<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	8 emakume ordezkarri
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Zer da Emakumeen Etxe bat?</i></li> <li>○ <i>Zertarako? Norekin?</i></li> <li>○ <i>Non?</i></li> <li>○ <i>Nola kudeatuko da, ze baliabiderekin?</i></li> </ul>		
<b>Nork sustatu zuen?</b>	Herriko hainbat emakumek		
<b>Besterik?</b>	Dinamizatzaile eta aholkularitzarik gabe egin zen prozesua. Horrek asko eragin zuen parte hartzean, emakume gutxik hartu zuten parte.		

**EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:**

<b>Ekipamenduaren kudeaketan emakumeek eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministak parte hartzeko espazioak daude? Nolakoak dira? Zer dago beren erabakien esku?</b>
<p>Emakumeen Etxea Elkarteak espazioa eta Etxearen jardura kudeatzen du. Udalarekin lankidetzaz hitzarmena du elkarteak, dirulaguntza eta lokalaren erabilera esleituta. Programazioa eta espazioaren erabilera antolatzen du elkarteak. Orokorrean, emakumeek norbanako giza erabiltzen dute espazioa.</p> <p>Herriko emakume elkarteek ere erabili dezakete lokala, eskaera edo erreserba eginez gero.</p>
<b>Zer eskaintza dago emakume-talde eta mugimendu feministarentzat Etxean?</b>
4 lan-ildo daude: gorputzak, feminismoa, umorea, eta ahalduntzea.

# Azpeitiko Emakumeen Txokoa



## 6.3. Azpeitiko Emakumeen Txokoa

### INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Azpeitia
<b>Biztanle-kopurua:</b>	14.000 biztanle
<b>Etxearen izena:</b>	Azpeitiko Emakumeen Txokoa
<b>Sortze-data:</b>	2011
<b>Helbidea:</b>	Goiko Kalea 12, behea. 20730, Azpeitia
<b>Ordutegia:</b>	Astelehenetik ostiralera, 09:00-13:00 eta 16:00-19:00
<b>Telefona eta emaila:</b>	<b>Telefonoak:</b> 943 15 70 55/ 688 751 000 <b>Emaila:</b> emakumetxokoa@azpeitia.eus
<b>Sare sozialak:</b>	<b>Instagram:</b> @emakumetxokoa <b>Twitter:</b> @ETxokoa <b>Facebook:</b> @AzpeitikoEmakumeenTxokoa
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Azpeitiko Udalean

### SORTZE-PROZESUA:

<b>Noiz hasi zen?</b>	2010	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2011
<b>Bilera-kopurua:</b>	10	<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	20
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Emakume Txokoaren izaera</i></li> <li>○ <i>Kudeaketa-eredua</i></li> <li>○ <i>Eskaintza-mota</i></li> <li>○ <i>Dinamizatzailearen funtzioak</i></li> <li>○ <i>Atxikimenduaren garrantzia</i></li> <li>○ <i>Eragileekin elkarlana</i></li> </ul>		
<b>Nork sustatu zuen?</b>	Emakume elkarteek, baina udalaren adostasunarekin.		
<b>Besterik?</b>	Emakumeen elkarteek Etxea kudeatzea nahi zelako zerbitzua azpikontratatzea erabaki zen, emakume elkarteek lehiazteko aukera baliatuz.		

### EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:

<b>Ekipamenduaren kudeaketan emakumeen eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministen parte hartzea:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen Mahaia izena duen espazioa dago. Bertan emakumeen eta udalaren arteko interlokuzioa ematen da. Aholku kontseilu modukoa da.</li> <li>- Herriko mugimendu feministarentzat erreferentziazko espazio bat da bilerak edo topaketak antolatzeko.</li> </ul>
<b>Emakume-talde eta mugimendu feministarentzako eskaintza:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beraiekin identifikatu izan diren beharrak asetzen saiatzen da Etxean: ikastaro, ekimen edo zerbitzu konkretuak jarri izan dira martxan haiek eskatuta.</li> <li>- Espazioaren erabilera mugimendu feministako kideek egin dezakete bertako ekimenik ez badago, eta giltza-sorta bat dute beren esku.</li> </ul>

# Donostiako Emakumeen Etxea



## INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Donostia
<b>Biztanle-kopurua:</b>	186. 665 biztanle
<b>Etxearen izena:</b>	Donostiako Emakumeen Etxea
<b>Sortze-data:</b>	Irekiera 2010eko azaroa
<b>Helbidea:</b>	Okendo 9, behea. 20004, Donostia
<b>Ordutegia:</b>	Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 21:00etara
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	<p><b>Telefonoa:</b> 943483470</p> <p><b>Emailak:</b> <a href="mailto:berdintasuna@donostia.eus">berdintasuna@donostia.eus</a>  <a href="mailto:info@donostiakoemakumeenetxea.com">info@donostiakoemakumeenetxea.com</a></p> <p>Udaleko eta Etxeko email berri bat sortzeko bidean dago.</p>
<b>Sare sozialak:</b>	<p>Facebook:  <a href="https://es-es.facebook.com/donostiakoemakumeenetxea/">https://es-es.facebook.com/donostiakoemakumeenetxea/</a></p> <p>Twitter:  <a href="https://twitter.com/DSSEmakumeenEtx">https://twitter.com/DSSEmakumeenEtx</a></p>
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Emakumeen Etxean bertan

### SORTZE-PROZESUA:

<b>Noiz hasi zen?</b>	2008	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2011
<b>Bilera-kopurua:</b>	11	<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	25
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	Espazioa, Etxearen izaera, kudeaketa-eredua, izena.		
<b>Nork sustatu zuen?</b>	Mugimendu feministak 2007tik zeraman eskari ofiziala egiten (Berdintasun Kontseiluan Plazandreak elkarteak txosten ofiziala egin zuen 2007an). Udalak bultzatu zuen prozesua 2008an.		
<b>Besterik?</b>	Hasieratik espazio handiagoa behar zela adierazi bazen ere, 2010ean behin behineko lokal batean jarri zen martxan ekipamendua. Gaur egun bertan darrai.		

### EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:

<b>Ekipamenduaren kudeaketan emakumeen eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministen parte hartzea:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekipamendua kogestionatua da. Goizez udalak kudeatzen du, eta arratsaldean, Emakume Etxea elkarteak, 1900 bazkide baino gehiago dauzkan elkarteak.</li> <li>- Elkarteak Etxeari buruz solasteko asanbladak eta lantaldeak ditu martxan.</li> <li>- Udala eta Elkartearen artean koordinatzeko ko-gestio mahaia izeneko organoa dago. Bertan, udalaren ordezkari teknikoak eta politikoak Emakumeen Etxea elkartearekin koordinatzen dira.</li> </ul>
<b>Emakume-talde eta mugimendu feministarentzako eskaintza:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteentzako armairuak daude materiala gordetzeko. Behean almazena.</li> <li>- Bilera gelak ere erabilgarri daude. Baina zoritxarrez, eskaera gehiago dago tokia baino, eta ez da aukerarik egoten eskaera guztiak asetzeko.</li> </ul>

# Eibarko Andretxea



## INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Eibar
<b>Biztanle-kopurua:</b>	27.566 biztanle
<b>Etxearen izena:</b>	Andretxea
<b>Sortze-data:</b>	2004ko martxoa
<b>Helbidea:</b>	Zezenbide 9, baxua. 20.600 Eibar
<b>Ordutegia:</b>	Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 13:00 eta 16:00-20:00 Ostiraletan: 08:00 – 14:00.
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	<b>Telefono finkoa:</b> 943 54 39 38 <b>Mugikorra:</b> 688 85 34 40
<b>Sare sozialak:</b>	<b>Facebook:</b> Berdintasun Zerbitzua. Andretxea <b>Twitter:</b> Andretxea Eibar <b>Instagram:</b> ANDRETXEIA EIBAR <b>Telegram:</b> Andretxea Eibar <b>Webgunea:</b> <a href="https://www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea">https://www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea</a>
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	<b>Gizartekintzan (Portaleko eraikinean)</b>

**SORTZE-PROZESUA:**

<b>Noiz hasi zen?</b>	2003	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2004
<b>Bilera-kopurua:</b>	Ez ziren erregistratu	<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	Ez ziren erregistratu
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	- Emakumeentzako espazio propio baten falta. Kokapena.		
<b>Nork sustatu zuen?</b>	Emakumeek, antolatuak eta antolatu gabeak.		
<b>Besterik?</b>	Negoiazio politikoa izan zen zuzenean, herrian emaniko gatazka baten aurrean. Gaur egun espazioa txiki geratu da, eta 2023rako espazio handiago bat irekiko da.		

**EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:**

<b>Ekipamenduaren kudeaketan emakumeen eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministen parte hartzea:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berdintasun politikez aritzeko Emakumearen Mahaia dago. Bertan, Berdintasun gaiez gain, Andretxearen beharrez ere hitz egiten da. Partaideak emakume ez antolatuak eta antolatuak izaten dira.</li> <li>- 2016an emakumeek eta elkarte ordezkariak, udalko Berdintasun zerbitzuarekin eta Andretxearekin batera lantalde bat osatu zuten etorkizuneko Andretxe berriaren inguruko kudeaketaz aritzeko.</li> </ul>
<b>Emakume-talde eta mugimendu feministarentzako eskaintza:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumearen Mahaian parte hartzea: Etxeko lantaldeetan eta ikastaroetan...</li> <li>- Espazioaren erabilera: Elkarte eta taldeek Andretxea beraien jardueretarako erabili dezakete.</li> </ul>

# Elgoibarko LILA



## INFORMAZIO OROKORRA<sup>9</sup>:

<b>Udalerria:</b>	Elgoibar
<b>Zein udalerritako biztanleak hartzen ditu:</b>	Elgoibarkoak gehienbat, nahiz eta Jabetze Eskolan Mendaro, Azkoitia, Markina eta Bergarako emakumeek parte hartu izan duten.
<b>Biztanle-kopurua:</b>	11.582 biztanle (2018ko datua)
<b>Etxearen izena:</b>	LILA
<b>Sortze-data:</b>	2021eko ekaina
<b>Helbidea:</b>	San Frantzisko 21, 2. pisua. 20.870 Elgoibar.
<b>Ordutegia:</b>	9:30-21:30. Ez da arreta zuzenik aurreikusten. Txartel elektronikoen bidez Etxea zabalduz, espazioaren erabilera zabal bat egin ahal izango dute herriko mugimendu feministako kideek, arautegi bat jarraituz.
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	berdintasuna@elgoibar.eus
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Aita Agirre Kalea, 3an; Kultura, Euskara eta Gazteria Saitetako teknikariek batera.



**ETXEAREN INGURUAN AIPATU GABE GERATU DEN BESTE ALDERDI ESANGURATSUREN  
BAT:**

Parte-hartze prozesuaren ostean osatu zen txostena:

[https://www.elgoibar.eus/gardentasuna/images/pdf/ELGOIBARKO\\_EMAKUMEEN\\_ETXEA\\_Parte-hartze\\_prozesua\\_EUS.pdf](https://www.elgoibar.eus/gardentasuna/images/pdf/ELGOIBARKO_EMAKUMEEN_ETXEA_Parte-hartze_prozesua_EUS.pdf)

Prentsako argitalpenak:

<https://elgoibar.eus/index.php/es/albiste-gehiago/4836-urtarrila-amaieran-ekingo-zaie-elgoibarko-emakumeen-etxea-eraikitze-lanei>

<https://gipuzkoa.hitza.eus/2021/01/29/beste-pauso-bat-berdintasunerantz/>

<https://barren.eus/albisteak/gizartea/5532-maialen-gurrutxaga-ahizpatasuna-lantzeko-erreferentziazko-gunea-izango-da-emakumeen-txokoa>

<https://barren.eus/albisteak/gizartea/5772-elgoibarko-emakumeen-etxea-elkarrekin-diseinatzeko-hasitako-prozesuaren-diagnosia-aurkeztuko-dute-gaur>

# Errenteriako Emakumeen Etxea



## INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Errenteria
<b>Biztanle-kopurua:</b>	38.000-40.000
<b>Etxearen izena:</b>	Errenteriako Emakumeen Etxea
<b>Sortze-data:</b>	2019ko martxo
<b>Helbidea:</b>	Txirrita Parkea, zk.g. 20.100 Errenteria
<b>Ordutegia:</b>	Astelehenak eta ostiralak: 09:00-13:00 Astearte, asteazken eta ostegunak: 16:00-20:00
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	<b>Telefonoa:</b> 943 449 630 <b>Emaila:</b> <a href="mailto:emakumeenetxea@errenteria.eus">emakumeenetxea@errenteria.eus</a>
<b>Sare sozialak:</b>	<a href="https://herribizia.errenteria.eus/es/casadelasmujeres">https://herribizia.errenteria.eus/es/casadelasmujeres</a>
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Gizarte Zerbitzuen azpisaila da, Udalean kokatzen da.
<b>Besterik:</b>	<a href="https://errenteria.eus/udala/udal-sailak-eta-azpisailak/berdintasuna/emakumeen-etxea/">https://errenteria.eus/udala/udal-sailak-eta-azpisailak/berdintasuna/emakumeen-etxea/</a>

## SORTZE-PROZESUA:

<b>Noiz hasi zen?</b>	2016	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2019
<b>Bilera-kopurua:</b>	6	<b>Parte-hartzaileak:</b>	20 elkarte, 100 bat emakume
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ <i>Zertarako Emakumeen Etxea?</i></li> <li>○ <i>Etxekideen printzipioak</i></li> <li>○ <i>Etxearen erabilerak eta antolaketa espaziala</i></li> <li>○ <i>Etxearen erabiltzaileak</i></li> <li>○ <i>Etxearen erabaki-guneak</i></li> <li>○ <i>Etxearen izena</i></li> </ul>		
<b>Nork sustatu du?</b>	Berdintasun Kontseilutik bultzatuta.		
<b>Besterik</b>	<p>Emakumeen Etxea irekitzeak Berdintasun sailaren lana ezagutarazi du herrian. Jabetze eskolak erreferentzialtasuna irabazi du.</p> <p>Emakume migratuentzako eskaintzak garrantzi handia du emakumeen arteko sareak sustatzeko balio du.</p> <p>Espero ez zen lan bolumena ekarri du indarkeria matxista kasuak deribatzeak.</p>		

## EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:

<b>Ekipamenduaren kudeaketan emakumeen eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministen parte hartzea:</b>
<p>Etxearen kudeaketarako hainbat erabaki-gune daude:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Batzarrak:</b> Etxekideek, berdintasun-teknikari eta –zinegotziak, eta dinamizatzaileak hartzen dute parte. Urtean 3-4 bilera egiten dira.</li> <li>- <b>Koordinazio-organoa:</b> berdintasun-zinegotziak, berdintasun-teknikariak eta emakumeen ordezkariak hartzen dute parte (maila pertsonalean). Urtean 3-4 aldiz biltzen da.</li> <li>- <b>Lantaldeak:</b> Guztira 6 lantalde eratu dira, identifikatutako beharren arabera.</li> </ul>
<b>Emakume-talde eta mugimendu feministarentzako eskaintza:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Programazio-lantaldearen bidez bideratzen dira haien ekarpenak eta beharrak.</li> <li>- Emakumeen Etxea erabiltzen dute haien bilerak eta topaguneak egiteko.</li> <li>- Biltegia eta armairuak daude elkarteentzako.</li> <li>- Hirigintza eta genero talde bat sortu da Emakumeen Etxeari lotuta.</li> </ul>

# Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista



## INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Hernani
<b>Biztanle-kopurua:</b>	20.438 biztanle
<b>Etxearen izena:</b>	Kulturarteko Plaza Feminista
<b>Sortze-data:</b>	2021-09-11
<b>Helbidea:</b>	Florida 28, 20120 Hernani
<b>Ordutegia:</b>	Astelehena-ostirala: 09:30-21:00 Larunbatak: 09:30-13:00 eta hileko 1. eta 3. larunbatetan arratsaldez ere 16:00-20:00 Uztaila eta abuztua: 09:30-14:00
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	<b>Telefonoak:</b> 943 33-70-17 688679599 <b>Emaila:</b> kulturartekoplazafeminista@hernani.eus
<b>Sare sozialak:</b>	<b>Facebook:</b> Hernani Kulturarteko Plaza Feminista <b>Twitter:</b> @HernaniPlazaFem <b>Instagram:</b> hernaniplazafem <b>Whatsapp:</b> 688679599
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Kulturarteko Plaza Feministan

**SORTZE-PROZESUA:**

<b>Noiz hasi zen?</b>	2016ko maiatza	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2021
<b>Bilera-kopurua:</b>	Maila ezberdinetako, baina 20 bileratik gora.		
<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	<b>Talde eragilean:</b> 20 pertsona <b>Bidelagun Sarean:</b> 23 <b>Parte-hartze Gune Irekian:</b> saio bakoitzean kopuru ezberdinak, baina denera 62 lagun (4 gizonetzko).		
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxea zertarako, ezaugarriak, antolaketa espaziala, izaera eta izena,</li> <li>- Baliabideak (baita dinamizatzailea udal-langilea izatearena ere),</li> <li>- Gizonen parte-hartzea...</li> <li>- Kudeaketa-eredua</li> </ul>		
<b>Nork sustatu du?</b>	Batez ere Berdintasun Sailak sustatu zuen, baina Berdintasunaren aldeko kontseiluak bultzatuta.		
<b>Besterik?</b>	<p>Hernaniko prozesua berezia izan da. Batetik, berdintasun politikak bultzatzeko Emakumeen Etxearen prozesua bezala jaio zen, baina bidean Kulturartekotasuna sustatzeko politikak batu zaizkio proiektuari. Gaur egun Kulturarteko Plaza Feminista da, eta AMHERrekin batera funtzionatzen duen ekipamendua da.</p> <p>Bestetik, ez da zuzenean emakumeei zuzendutako prozesua izan, eta 62 partaidetik 4 gizonak izan dira.</p>		

**EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:**

<b>Ekipamenduaren kudeaketan emakumeen eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministen parte hartzea:</b>
Elkarteentzako espazio asko dago ekipamenduaren barruan, eta eguneroko harremana dago bertan. Ez dago egiturarik zehaztuta partaidetzarako, bai ordea espazioa eta denbora.
<b>Emakume-talde eta mugimendu feministarentzako eskaintza:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera gela iraunkorrak daude soilik eta bakarrik elkarten/mugimenduaren erabilerarako.</li> <li>- Biltegiak, armairuak, ordenagailuak, inprimagailuak, liburutegia, sukaldea, eta beste hainbat baliabide dauzkate egunerokoan erabilgarri.</li> </ul>

# Urola Garaiko Emakumeen Etxea



## INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerriak:</b>	Urola Garaia eskualdea: Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu, Zumarraga
<b>Biztanle-kopurua:</b>	Ezkio-Itsaso: 601 ; Legazpi: 8.321 ; Urretxu: 6.782 ; Zumarraga: 9.781 ; DENERA: 25.485 biztanle
<b>Etxearen izena:</b>	Urola Garaiko Emakumeen Etxea
<b>Sortze-data:</b>	2019-03-08
<b>Helbidea:</b>	Pagoeta Auzoa, 1. 20.700 Urretxu
<b>Ordutegia:</b>	Astelehenetik ostegunera: 08:00-16:00 Ostirala eta uda: 08:00-15:00
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	943 25-23-89 ; berdintasuna@uggasa.eus
<b>Sare sozialak:</b>	<b>Facebook:</b> Urola-Garaia-Berdintasuna <b>Twitter:</b> @UGberdintasuna <b>Instagram:</b> berdintasunaug <b>Whatsapp:</b> 649-748-343
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Emakumeen Etxean

**SORTZE-PROZESUA:**

<b>Noiz hasi zen?</b>	2016	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2019
<b>Bilera-kopurua:</b>	11	<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	45
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Beste Emakumeen Etxeetako kudeaketa ereduak eta edukiak</li> <li>-Beste Emakumeen Etxetarako bisitak</li> <li>-Non kokatu Urola Garaiko Emakumeen Etxea</li> <li>-Aukeratutako eraikinera bisita</li> <li>-Zer alderdi hartu behar dira kontuan Emakumeen Etxea diseinatzeko</li> <li>-Diseinua: espazioa, edukiak, kudeaketa ereduak</li> </ul>		
<b>Nork sustatu zuen?</b>	Berdintasun sailetik sustatu zen, II. Planaren bitartez.		
<b>Besterik:</b>	<p>Prozesuak iraun zuen bitartean, Berdintasun Arloan aldaketak egon ziren, eta ondorioz, prozesua etenda egon zen.</p> <p>Jabetze Eskolak aspalditik zuen pisu txiki bat. Gaur egun, ordea, Emakumeen Etxea egoteak kalitatea ematen dio zerbitzuari.</p>		

**EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:**

<b>Ekipamenduaren kudeaketa emakumeen eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministen parte hartzea:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakume erabiltzaileekin eta mugimendu feministarekin interlokuziorako espazio bat aurreikusten bada ere, orain arte ez da martxan jarri, pandemia dela eta.</li> </ul>
<b>Emakume-talde eta mugimendu feministarentzako eskaintza:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espazioa erabiltzeko aukera.</li> <li>- Itxitako takillak materialak gordetzeko.</li> </ul>

# Zarauzko Emakumeen\* Etxea



## INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Zarautz
<b>Zein udalerritako biztanleak hartzen ditu:</b>	Zarauzko emakumeak
<b>Biztanle-kopurua:</b>	23. 260 biztanle
<b>Etxearen izena:</b>	Emakumeen* Etxea
<b>Sortze-data:</b>	2020/10/23
<b>Helbidea:</b>	Nafarroa 3c-behea. 20.800 Zarautz.
<b>Ordutegia:</b>	16:00-20:00
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	<b>Telefonoa:</b> 943 005 136 <b>Emaila:</b> Emakumeen-etxea@zarautz.eus
<b>Sare sozialak:</b>	<a href="https://www.facebook.com/ZarauzkoEmakumeenEtxea">https://www.facebook.com/ZarauzkoEmakumeenEtxea</a> Instagram – Zarauzko Emakumeen etxea
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Emakumeen etxeko eraikin berdinean. Nafarroa 3c-behea



**SORTZE-PROZESUA:**

<b>Noiz hasi zen?</b>	2015	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2020/10/23
<b>Bilera-kopurua:</b>	5	<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	30
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxearen funtzionamendua eta kudeaketa.</li> <li>- Etxearen helburuak</li> <li>- Eskaini beharreko zerbitzuak</li> <li>- Espazioaren antolaketa</li> <li>- Kudeaketa eta funtzionamenduaren oinarriak</li> <li>- Espazio erabiltzeko prozedura</li> <li>- Izena.</li> </ul>		
<b>Besterik?</b>	<p>- Hasiera batean Emakumeen etxea Villa Mundan kokatu behar zen eta azkenean gaur egun dagoen lekuan kokatu da. Hasieratik berriz hasteak eragiten duen lan-karga.</p>		

**EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:**

<b>Ekipamenduaren kudeaketan emakumeen eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministen parte hartzea:</b>
<p>Mahai bat sortzeko asmoa dago Etxearen programazioan emakumeek parte hartzeko. COVID19a dela eta atzeratu egin da hau guztia.</p>
<b>Zer eskaintza dago emakume-talde eta mugimendu feministarentzat Etxean?</b>
<p>Bi gela eta txokoa dituzte erabilgarri, aurretik eskaera eginez erreserbatzeko aukera dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ikastaro gelan:</b> proiektorea, kamera, pizarra, mahaia eta aulkiz hornitutako gela dute.</li> <li>• <b>Bilera-gelan:</b> Mahaia eta aulkiez gain office bat ere badute.</li> <li>• <b>Txokoan:</b> 3 ordenagailu, sofa, liburuak, mahaiak eta aulkiez gain, officea dute.</li> </ul> <p>Elkartek eskaera egiten diote Parekidetasun departamentuari eta departamentutik ematen zaie baimena.</p>

# Zumaiako Emakumeon\* Etxea



## INFORMAZIO OROKORRA:

<b>Udalerria:</b>	Zumaiako Emakumeon* Etxea
<b>Zein udalerritako biztanleak hartzen ditu:</b>	Zumaia
<b>Biztanle-kopurua:</b>	10.227
<b>Etxearen izena:</b>	Zumaiako Emakumeon* Etxea
<b>Sortze-data:</b>	2021/09/30 (irekiera data), aurretik beste urtebete eta erdi pasa genuen behin- behineko lokal batean
<b>Helbidea:</b>	San Telmo kalea 19 (sarrera Martxoaren 8a plazatik)
<b>Ordutegia:</b>	Astelehen eta ostirala: 09:30-12:30 Astearte, asteazken eta osteguna: 17:00-20:30
<b>Telefonoa eta emaila:</b>	633432762 (tel. eta watsapa) <a href="mailto:info@zumaiakoemakumeontexea.eus">info@zumaiakoemakumeontexea.eus</a> <a href="http://www.zumaiakoemakumeonetxea.eus">www.zumaiakoemakumeonetxea.eus</a>
<b>Sare sozialak:</b>	Facebooka: Zumaiako Emakumeon Etxea Instagram: @zumaiakoemakumeonetxea
<b>Berdintasun-sailaren kokapena:</b>	Zumaiako Udaletxean

**SORTZE-PROZESUA:**

<b>Noiz hasi zen?</b>	2017 (bukaeran)	<b>Noiz amaitu zen?:</b>	2021/09/30
<b>Bilera-kopurua:</b>	asko	<b>Parte-hartzaile kopurua:</b>	50 (gutxi gorabehera) edo gehiago Eta Udaleko talde politikoekin egindako bilerak proiektuan sinisteko
<b>Landutako gai esanguratsuenak:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beste herrietako informazioa jaso, Berdintasun Foroko emakumeek eta teknikariak</li> <li>- Herri batzuen esperientzia ezagutzeko 2 saio</li> <li>- Etxearen definizio eredu osatu (talde eragileak eta teknikariak)</li> <li>- Definizio hori herriko emakumeekin kontrastatu</li> <li>- Denon definizioa egin, behin betikoa dena</li> </ul>		
<b>Besterik?</b>	- Emakume talde eragilea sortu zen (6-7 lagun), Berdintasun teknikariarekin batera lanean aritzeko sortze prozesuan. Ezinbestekoa prozesuan.		

**EMAKUMEEN ETA ELKARTEEN PARTE-HARTZEA:**

<b>Ekipamenduaren kudeaketa emakumeen eta berdintasunerako elkarte eta mugimendu feministen parte hartzea:</b>
Kudeaketa sistema Kogestioa denez, parte-hartze zuzena dute. Horretarako, talde eragileak elkarte bat sortu zuen: Zumaiako Emakumeon* Etxea elkarte. Horrela kudeaketa partekatua egiten da: Udala, elkarte eta Berdintasun Foroa.
<b>Zer eskaintza dago emakume-talde eta mugimendu feministarentzat Etxean?</b>
<p>Jabetze eskola</p> <p>Elkarguneak</p> <p>Agenda: hitzaldiak...</p> <p>Aholkularitza zerbitzuak</p> <p>Lantaldeak: autozaintza taldea...</p> <p>Eskola Feminista (sortzen ari gara, urtarriletik aurrera abian jartzeko)</p>

